

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA

3018

95/2009 FORU AGINDUA, martxoaren 10ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Mañuetako udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntuala; hain zuzen ere, lurzoru urbanizaezineko 2 poligonoko 448 eta 451 lurzatiei buruzkoa.

I.- AURREKARIAK

Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreken Saileko abenduaren 5eko 751/2008 Foru Aginduaren bidez, bertan behera utzi zen Mañuetako udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren, hain zuzen ere, lurzoru urbanizaezineko 2 poligonoko 448 eta 451 lurzatiei buruzkoaren, behin betiko onarpena, harik eta espediente horretan aldaketak jasotzen diren arte.

Mañuetako Udalak, 2009ko martxoaren 4an, espedientearen testu bateratua igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela aitortuz.

II.- OINARRIAK

Espedientea osatzen duten agiriak aztertu ondoren, aipatutako foru aginduan ezartzen ziren aldaketak bete direla egiaztatu da.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Mañuetako udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntuala; hain zuzen ere, lurzoru urbanizaezineko 2 poligonoko 448 eta 451 lurzatiei buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aipatutako errekurtsioa jarri aurretik, berraztertzeke errekurtsioa ebazpena eman duen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 10a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

UE-7 EGIKARITZE UNITATEAREN HIRIGINTZA FITXA

XEDEA: Bizitegi-upategi erabilera mistoko hiri lurzorua antolatzea. Hiri lurzoru hori udalerriko ipar-ekialdean dago; hain zuzen ere, Kale Nagusiaren bukaeran, Samaniegoko irteeran, kale hori A-4204 bide bihurtzen den tokian.

AZALERA GORDINA: 3.815, 62 m²

AZALERA ERAIKIGARRIA: 600,00 m²

JARDUKETA SISTEMA: hitzarmena

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

3018

ORDEN FORAL 95/2009, de 10 de marzo, de aprobación definitiva del expediente Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Baños de Ebro, referente a las parcelas 448 y 451 del polígono 2 del suelo no urbanizable.

I.- ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral nº 751/2008, de 5 de diciembre, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, se suspendió la aprobación definitiva del expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Baños de Ebro, referida a las parcelas 448 y 451 del polígono 2 del suelo no urbanizable, hasta que fueran introducidas en el expediente las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 4 de marzo de 2009, el Ayuntamiento de Baños de Ebro ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación presentada se comprueba que ha dado cumplimiento a todas las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Baños de Ebro, referente a las parcelas 448 y 451 del polígono 2 del suelo no urbanizable.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 10 de marzo de 2009.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

FICHA URBANÍSTICA DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN U.E.-7

OBJETO: Ordenación del área de Suelo Urbano de uso mixto residencial-bodegas, situada al final de la calle Mayor donde ésta se convierte en la carretera A-4204, en la salida del municipio hacia Samaniego, en la parte noreste del municipio.

SUPERFICIE BRUTA: 3.815, 62 m²

SUPERFICIE EDIFICABLE: 600,00 m²

SISTEMA DE ACTUACIÓN: Concertación

EGIKARITZEA:

PROIEKTUA	EPEA
Berriro lurzatikatzea	urtebete onartzeko
Xehetasunezko azterlana	urtebete onartzeko
Urbanizazioa	bi urte onartzeko
Eraikitzea	4 urte lizentzia eskatzeko

Kasu guztietan, arau subsidiarioen behin betiko onarpena ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatu behar dira urteak.

URBANIZAZIO PROIEKTUAK BETE
BEHARREKO BALDINTZAK:

Sarrerak: A-4204 errepidetik sarrera zuzen bakarra izango da.

Aparkalekuak: aparkalekua egikaritze unitatearen barruan egongo da eta, gutxienez, aparkaleku bat egongo da 100 metro koadro eraikigarriko.

Gutxieneko neurriak: bidearen neurria bideetako sekzioen lerrokadurak izeneko NR-5A planoan daude jasota, eta S-5 zeharkako sekzioarekin bat dator.

Arazketa eta isurketak: legeak ezarritako baldintzak beteko dituzte upategietako ur zikinak arazteko leku horretan proiektatzen diren sistemek, eta berariaz debekatzen dira zuzeneko isurketak, hala lur gainean nola lur azpian.

ORDENAZIO SISTEMA:

Distantzia bide publikoetara eta mugetara: lurzatiaren itxiturarik errepideko ardatzera 8 metro izango dira; bide publikora eta mugetara, berriz, 3 metro.

Nahitaezko lagapenak: arau hauen 215. artikuluan eta agiri grafikoan lerrokadurek zehaztutakoak.

Urbanizazio kargak: kasuan-kasuan urbanizazioa ordenazio-planoetan jasota dagoen bezala egiteko beharrezkoak direnak.

APLIKATU BEHARREKO ORDENANTZA: OR-5 "Nekazaritzarako eta Abeltzaintzarako Zona", fitxa honetan ez zehaztutakoetan.

BESTE PARAMETRO BATZUK: ERAIKINAREN ARAU OROKORRAK izeneko VI. tituluaz azaldutako araudi orokorra aplikatuko da.

DOTAZIOETARAKO LURZORUA LAGATZEA ETA
ERRESERBATZEA

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 78. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, sistema orokorren sareko dotazioetarako, gutxienez, erreserbatu beharrekoa ondokoa da:

- Egikaritze unitaterako aurrez ikusitako biztanle kopurua lau da.

Beraz, sistema orokorren sareko dotazioetarako, oraingo honetan berdegunetarako, erreserbatu beharreko azalera ondokoa da:

$$4 \text{ pertsona} \times 5 \text{ m}^2 = 20 \text{ m}^2$$

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 79. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, toki sistemen sareko dotazioetarako, gutxienez, erreserbatu beharrekoa ondokoa da:

- Erabilera eta jabari publikoko eremu libreen sistemak:

behin sistema orokorren sareko dotazio publikoetarako lurrak kendutakoan, gutxienez, sektorearen azalaren % 12 erreserbatuko da, eta horretatik erdia berdeguneetarako gordeko da.

Unitatearen azalera: 3.815,62 m²

Sistema orokorretarako gordetako azalera:

Errepidea: 296,67 m²

Bazterbidea eta ertz-erretena: 65,18 m²

Berdegunea: 20,00 m²

EJECUCIÓN:

PROYECTO	PLAZO
Reparcelación:	1 año para su aprobación
Estudio de Detalle	1 año para su aprobación
Urbanización	2 años para su aprobación
Edificación	4 años para solicitud de licencia

En todos los casos se cuentan los años a partir de la publicación en el B.O.T.H.A. de la aprobación definitiva de las Normas Subsidiarias.

CONDICIONES A CUMPLIR POR EL PROYECTO
DE URBANIZACIÓN:

Accesos: Existirá un único acceso directo desde la carretera A-4204.

Aparcamientos: Deberá resolverse el aparcamiento en el interior de la Unidad de Ejecución con al menos 1 aparcamiento por cada 100 m² edificables.

Dimensiones mínimas: La dimensión del vial figura en el plano número NR-5A Alineaciones-Secciones de Viales y se corresponde a la sección transversal S-5.

Depuración y vertidos: Los sistemas de depuración de aguas residuales de las instalaciones bodegueras que se proyecten en el lugar respetarán las condiciones de vertido legalmente establecidas, prohibiéndose expresamente el vertido directo tanto en superficie como en subsuelo.

SISTEMA DE ORDENACIÓN:

Separación a vía pública y linderos: La separación del cierre de parcela al eje de la carretera será de 8 metros. La separación a vía pública y linderos será de 3 metros.

Cesiones obligatorias: Las definidas en el artículo 215 de estas Normas y por las alineaciones de la documentación gráfica.

Cargas de urbanización: Las necesarias en cada caso para complementar la urbanización según queda reflejada en los correspondientes planos de ordenación.

ORDENANZA DE APLICACIÓN: OR-5 "Zona Agropecuaria" para lo no definido en esta ficha.

OTROS PARÁMETROS: Será de aplicación la Normativa General definida en el Título VI: NORMAS GENERALES DE LA EDIFICACIÓN.

CESIONES Y RESERVA DE SUELO
PARA DOTACIONES

De acuerdo con el artículo 78 de la ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, las reservas mínimas para dotaciones para la red de sistemas generales son:

- El número de habitantes previsto en la Unidad de Ejecución es de 4. Por lo tanto, la superficie destinada a dotaciones para la red de sistemas generales, en este caso, zona verde es de:

$$4 \text{ personas} \times 5 \text{ m}^2 = 20 \text{ m}^2$$

De acuerdo con el artículo 79 de la ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, las reservas mínimas para dotaciones para la red de sistemas locales son:

- Sistemas de Espacios Libres de Dominio y Uso Públicos:

El módulo mínimo de reserva será el 12% de la superficie del Sector, deducidos los terrenos destinados a dotaciones públicas de la red de sistemas generales, de la que, al menos un 6% se destinará para zonas verdes.

Superficie de la Unidad: 3.815,62 m²

Superficie destinada a sistemas generales:

Carretera: 296,67 m²

Arcén y rigola: 65,18 m²

Zona verde: 20,00 m²

Horrenbestez:

3.433,77 metro koadroren % 12: 412,05 m²

3.433,77 metro koadroren % 6: 206,03 m²

Toki sistemen sarerako 433,96 m² lagako dira, eta horietatik 274,61 m² berdegune izango dira. Hortaz, legeak zehaztutako gutxieneko estandarrek betetzen dira.

- Aparkalekuak:

Eraikitako 100 metro koadroko, gutxienez, aparkaleku bat erre-serbatuko da.

Eraikitakoa: 800,00 m².

800,00 m²: 100: 8

Lurzati eraikigarriaren barruan zortzi aparkaleku egingo dira lur gainean. Horietako bat ezinduentzako izango da.

-Irabazizko aprobetxamenduaren lagapena:

Irabazizko aprobetxamendu gisa unitatearen aprobetxamenduaren % 10 lagako da.

Sektoreko irabazizko aprobetxamendua: 600,00 m²; beraz, lagapena ondokoa da:

600,00 metro koadroren % 10: 60,00 m²

Por lo tanto:

12 % de 3.433,77 m²: 412,05 m²

6 % de 3.433,77 m²: 206,03 m²

Se prevé una cesión para la red de sistemas locales de 433,96 m², de los que 274,61 m² están destinados a zona verde. Por lo tanto, se cumple los estándares mínimos fijados en la ley.

- Aparcamientos:

El módulo mínimo de reserva será de 1 plaza por cada 100 metros cuadrados de edificación.

Edificación: 800,00 m².

800,00 m²: 100: 8

Se prevén 8 plazas en superficie ubicadas dentro de la parcela edificable, una de las cuales estará adaptada para minusválidos.

- Cesión de aprovechamiento lucrativo:

El módulo de cesión de aprovechamiento lucrativo será el 10% del aprovechamiento de la Unidad.

Aprovechamiento lucrativo del Sector: 600,00 m², por lo tanto la cesión es:

10 % de 600,00 m²: 60,00 m²

Zuzendarien ebazpenak

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

3019

442/2009 Ebazpena, apirilaren 1ekoa, Arabako Foru Aldundiaren museoetako arreta guneeetan saltzen diren hainbat produkturen prezio publikoak onartzen dituen.

Ekainaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren 41/2005 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren Museoetako arreta guneeetan saltzen diren hainbat produkturen prezio publikoak arautzea onartu zen.

Foru dekretu horren bigarren xedapen gehigarrian Kultura eta Kirol Zuzendaritzari baimena eman zitzaion ebazpenak hartzeko, eranskinean jasotzen ez ziren eta Arabako Foru Aldundiaren museoetako arreta guneeetan salgai zeuden produktuen prezio publikoak zehazteko. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da.

Bibat museo gunearen inaugurazioa dela-eta produktu berriak salgai jarriko direla ikusirik, zuzendaritza honek egoki irizten dio horien prezio publikoa zehaztea.

Horregatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Ondoren adierazten den ondasun zerrendari prezio publikoak aplikatzea. Ondasun horiek jendearen eskura jarriko dira Bibat museo gunearen inaugurazioan.

PREZIO PUBLIKOAK, BEZA BARNE

Postalak (bat):	0,30 euro
Bibat arkatzak	0,50 euro
La Hoya zeramika: Katilua	5,00 euro
La Hoya zeramika: Kikara txikia	5,00 euro
La Hoya zeramika: Kikara handia	5,00 euro
Zintzilikarioa: Zaldia	10,00 euro
Zintzilikarioa: Aleak	10,00 euro
Zintzilikarioa: Giza itxurako irudia	10,00 euro
Karta-sorta espainiarra	10,00 euro
Karta-sorta britainiarra	10,00 euro
Edontzi-azpikoa (karta-sorta indiarra)	3,00 euro

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 1a.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaria, AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

Resoluciones de los Directores

DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

3019

Resolución 442/2009, de 1 de abril, de aprobación de los precios públicos correspondientes a la venta al público de diversos bienes en los puntos de atención de los Museos de la Diputación Foral de Alava.

Mediante Decreto Foral 41/2005, del Consejo de Diputados de 7 de junio, se aprobó la regulación de los precios públicos relacionados con la venta al público de diversos bienes en los puntos de atención de los Museos de la Diputación Foral de Alava.

En la disposición adicional segunda, se autorizaba a la Dirección de Cultura y Deportes a tomar resoluciones, para el establecimiento de las tarifas de los nuevos bienes puestos a la venta en los puntos de atención de los Museos de la Diputación Foral de Alava, no incluidas en el Anexo, la cual será publicada en el BOTHA.

Toda vez que se van a poner a la venta nuevos bienes con motivo de la inauguración del complejo museístico Bibat, esta Dirección considera adecuado establecer el precio público de las mismas.

En su virtud, en el ejercicio de las facultades que me competen,

RESUELVO

Primero. Aprobar la aplicación de los precios públicos a la relación de bienes que se señala, y que con motivo de la inauguración del complejo museístico Bibat se pondrán a disposición del público en general.

PRECIOS PÚBLICOS, IVA INCLUIDO

Postales (unidad)	0,30 euros
Lápices Bibat	0,50 euros
Cerámica La Hoya: Cuenco	5,00 euros
Cerámica La Hoya: Taza pequeña	5,00 euros
Cerámica La Hoya: Taza grande	5,00 euros
Colgante: Caballo	10,00 euros
Colgante: Cuentas	10,00 euros
Colgante: Representación Antropomorfa	10,00 euros
Edición Baraja Española	10,00 euros
Edición Baraja Británica	10,00 euros
Posavasos Baraja India	3,00 euros

Segundo. Publicar esta resolución en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 1 de abril de 2009.- El Director de Euskera, Cultura y Deportes, AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.